Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inazio Ernabide Goiaga

Soraluze, Gipuzkoa
(1917-2023)



Aurkibidea

Biografia



Jaio zenean Zizurkilgo “Casa Cuna Provincial”en utzi zuten. Bergarako Osintxu auzoko Leocadio Ezenarrok eta Concepción Alvarezek jaso eta hazi zuten. Bost anai-arreba izan ziren, bera zaharrena. Kontxa Egaña eta Paka maistrekin ikasi zuen Osintxuko eskolan. Geroago, delineatzaile titulua atera zuen postaz eginiko ikasketetan. Hamalau urterekin hasi zen lanean Eibarko Txantoianeko Star pistola lantegian. Geroago Bergaran peoi moduan eta Algodoneran egin zuen lan. Soraluzen torlojugintzan eta kanoi lantegian ibili eta gero, torlojugintza tailerra eratu zuen bazkide batekin. Jubilatu arte jarraitu zuen bere tailerrean. Gerra zibilean errepublikano eta abertzaleen aldean borrokatu zuen. “Batallón de Trabajadores”en zigortuta lan egin zuen 1940ko urtarrila arte. Elkarrizketan Iñurrieta anaiak, Nikanor eta Julen, egon ziren.

Zintak

SOR-061

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-02
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

SOR-062

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-02
- **Iraupena**: 36 min
- **Euskarria**: MiniDV

Pasarteak

1. Sehaska Etxetik Osintxu auzora

- **Erref**: SOR-061/001
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Inazio Ernabide Goiaga, Zizurkilgo Sehaska Etxean jaso zuten eta Bergarako Osintxu auzora eraman. Ezenarro Alvarez abizenak izan zituen ezkondu zen arte, guraso ordekoena, hain zuzen ere. Ezkontzako agiriak egiteko, jatorrizko abizenak berreskuratu egin behar izan zituen.

2. Etxekoek etxekoen berri

- **Erref**: SOR-061/002
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:05:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Soraluzera ezkondu zen arte, Bergarako Osintxu auzoan bizi izan zen. Abizenak aldatu zituenean, bere anai-arrebek jakin zuten Inazio ez zela etxean jaiotakoa. Osintxun eskolatu zen, zazpi urterekin, Kontxa Egaña eta Paka izeneko maistrekin. 14 urterekin hasi zen lanean Eibarren, Txantoianena pistola lantegian, Pistolas Staren, 1931. urtean.

3. Francoren anaiaren balentria

- **Erref**: SOR-061/003
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:05:07. **Bukatu**: 00:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolak erdaraz jaso zituela, baina euskara ere apur bat erabili zutela dio. Francoren anaia izan omen zen Ameriketara aireplanoz joaten lehenetarikoa. Balentria hori ospatzeko, eskolan jai eman zietela gogoratzen du Inaziok.

4. Jolasak; Osintxuko eskola

- **Erref**: SOR-061/004
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:07:33. **Bukatu**: 00:10:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Balentokian eta lapur-zibilka jolasten zuten mendian lasterka. Adin ezberdinetako neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, Osintxuko eskola bakarra betetzen zutela. Eskolan ez zegoen ez komun ez eta argirik ere. Eskola partikularrak Paka maistraren senarrak ematen zizkien. Eskolan ez omen zuen ikasi biderketak dezimalekin egiten.

5. Eliz-mutil eta delineatzaile

- **Erref**: SOR-061/005
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:10:16. **Bukatu**: 00:12:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Eskola gutxi ikasita irteten zuten eskolatik. Dotrina izan zen gehien ikasi zutena. Lanean hasi eta gero ikasi zuen dezimalekin kontuak egiten. Marrazten ere lanean ikasi zuen. Delineatzaile titulua postaz eginiko ikasketen bidez atera zuen. Eliz-mutil zegoenean egindako gaiztakeriak azaltzen ditu. Eskolara sartzeko bidea elizpetik zuten.

6. Hari eta pistola lantegiak

- **Erref**: SOR-061/006
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:12:35. **Bukatu**: 00:15:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:
Ama Bakaikutik Osintxuko “Fábrica de Hilaturas”era lanera etorritakoa zen. Aitak uda partean egunean 17 ordu egiten zuen lan, 7,50 pezetaren truke. Eskolak bukatu eta Eibarrera joan zen lanera. Krisia zela eta, 45 langile kaleratu zituzten Txantoianena pistola lantegitik, Inazio barne.

7. “Algodonera”n gerra hasi zenean

- **Erref**: SOR-061/007
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:15:26. **Bukatu**: 00:18:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Eibarko Txantoienanetik kaleratu ondoren, Bergaran hasi zen peoi-lanetan, aitarena baino jornal hobeagoarekin. Geroago, Bergarako “Algodonera” lantegian hasi zen lanean, kotoi eta oihalgintzan. Gerra hasi zenean, Bergaran guardiak egiten pasahitza (kontraseña) eskatzen zuten.

8. Gerrako fronte batzuk

- **Erref**: SOR-061/009
- **Iraupena**: 0:04:39. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:26:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Osintxuko talde bat “Batallón Azaña”n sartu zen eta Donostiako “Frontón Moderno”ko kuartel nagusira joan ziren. Irundik Laredoraino joan ziren, atzera egiten beti. Loilara heldu zirenean, Inazio “Batallón Loyola”ra pasatu zen. Gernikako bonbardaketa Mañariko mendietatik ikusi zuen. Mañariko frontean gertatutakoak azaltzen ditu.

9. Gerrako borroka gogorrak

- **Erref**: SOR-061/010
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:26:14. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bilbo galdu eta gero, Iurreko gainean gertuko borroka gogorrak izan zituzten. Gudariek borondate gogorra zutela, baina aginte ona falta zela dio Inaziok.

10. Heriotzatik ozta-ozta libratu zen bakarra

- **Erref**: SOR-061/011
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:29:30. **Bukatu**: 00:32:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Nazionalek trenbideetako sei langile eraman zituzten hiltzera Osintxun. Gaua aprobetxatuz, euretako batek, Anbrosiok, ihes egin zuen; bizirik ateratzea lortu zuen bakarra izan zen. Gudariak Basalgo auzoan zeuden, eta Anbrosio babestuta zegoen baserritik jaso zuten, nazionalen erasopean. Inaziok ez zuen gerra guztian bala-zauririk izan.

11. Legutioko bataila

- **Erref**: SOR-061/012
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:32:42. **Bukatu**: 00:35:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Legutioko frontean, Gasteiz hartu guran. Legutioko batailan alferreko baja asko izan zutela dio Inaziok. Elurra ari zuen, eta ia oinak izoztu zitzaizkion. Lagun bi galdu zituen bertan.

12. Basalgon gertatutakoa

- **Erref**: SOR-061/013
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:35:58. **Bukatu**: 00:38:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Bergarako Basalgo auzoan gertatutako kontu bitxiak azaltzen ditu. Legution erretretan bildotsa bizkarrean hartuta joan zen Inazio.

13. Legution gogorrak jasan zituzten

- **Erref**: SOR-061/014
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:38:19. **Bukatu**: 00:40:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Nazionalek Asentzio hartu zutenean, Inazio eta bere kideak izan ziren azkenak bertatik alde egiten, nolabait ihesi. Legutioko borrokako kontu gogorrak. Handik aurrera beti beldurrez.

14. Laredon preso

- **Erref**: SOR-061/015
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:40:58. **Bukatu**: 00:43:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Italiarrek preso hartu zituzten Laredon, Ingalaterrara eramango zituzten itsasontziaren zain zeudela. Handik Castro Urdialesko kontzentrazio-esparrura

eraman zituzten. Hilabete oso gogorra eman zuten bertan; eta gero, Iratxera eraman zituzten.

15. "Trabajadores"etan

- **Erref**: SOR-061/016
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:43:48. **Bukatu**: 00:46:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
San Pedro de Cardeñatik eta Lermatik pasatu ziren. Lerman eraturiko “50. Langileen Batailoia”n sartu zuten Inazio, italiarren atzetik trintxerak egiten joateko. Teniente mexikar baten agindupean, lan gogorrak egin zituzten. Norbaitek batailoitik gorrien bandora alde egiten bazuen, bere lagun bat fusilatzen zuten nazionalek, zigor eredugarri bezala.

16. Kalte-ordaina gaur kobratu

- **Erref**: SOR-061/017
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:46:49. **Bukatu**: 00:50:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
1940. urteko urtarrilean lizentziatu zuten "Trabajadores"etatik. Kobratu berri du Inaziok "Trabajadores"etan egindako lanengatik kalte-ordaina.

17. Gerratik itzulera

- **Erref**: SOR-061/019
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:52:05. **Bukatu**: 00:53:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Osintxu auzoan ez, baina Soraluzen jasan zituzten bonbardaketak. Ama gerra denboran umeekin bakarrik geratu zen etxean. Inazio etxera itzuli zenean lanean hasi zen Soraluzen. Armagintza ikasi eta bere lantegia sortu zuen.

18. Erromerian borrokan

- **Erref**: SOR-061/020
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:53:52. **Bukatu**: 00:56:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Gerraurretik Osintxu auzoan jaiero egoten zen erromeria. Erromerietan jende arteko borrokak ohikoak ei ziren. Inaziok borrokalari ospea omen zuen. Soinujoleek edo jazzband-ak alaitzen zituzten erromeriok.

19. Dantzak eta neska laguntzeak

- **Erref**: SOR-061/021
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:56:35. **Bukatu**: 00:59:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Mutilek txakur handi bat ordaintzen zuten dantza piezako. Neska laguntzera zihoazen kanpoko mutilak harrika erasotzen omen zituzten osintxuarrek.

20. Errepide zaharrak

- **Erref**: SOR-061/022
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:59:19. **Bukatu**: 01:02:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Inguruetako erromerietara bizikletaz edo oinez joaten ziren. Inaziok asfaltorik gabeko errepideak ezagutu zituen. Orduko errepideak nola egiten ziren azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com